

LEKUONA 'TAR MANUEL 'I BURUZ ITZ BI

Gure gotzai agurgarria, nere adiskide eta lagun Manuel jauna, andere-gizonak!

Gaurko jai au eta emen ospatzen deguna oso unkigarriak netzat. Oroipen asko dakarzkiz burura, 1904 garren urtetik asita gaurdaño.

Urte ortan D. Manuelek eta nik elkar eazagutu bai genduen. zuzen esateko, Baliarrain'go errian izan zen. Bera orduan amar urteko mutikoa.

Geroztik beti elkarrekin gure ikastaro luzean eta ondorengo irakaskuntzetan, 1936 go guda sortu zan arte.

Naizta orduko ikasgiroa etzan euskal-kutsuan oiñarritua, ezta euskeraren aldekoa ere, D. Manuël'ek bere etxetik zekarren euskal-ikaskuntzen egarria. Nik ala igarri nion beti. Atsegiñaz aipa oi zituan bere osaba (Iñarra) batek lagatako euskal-idazki eta liburuak: auek zituan benetan bere gogoko oroipenak. Eta gai orientarako joera beti agertzen zuan. Eta ari ortan zintzo jarrai, maiz inguru aserreari arpegi emanaz.

* D. Manuel'i Kardaberaz'tarrak Tolosa'n egin zioten omenaldian esana, 1977.go Abenduaren 28.n.

Gaztetako ikasgaraiak euskera eta euskal-edestia ikasten zaildu zan. Eta, egia esan, nik berari gai ortan asko zor diot. Beragandil ikasi bai nituan gure kondairako berri asko.

Ikasten ez ezik, baita idazten ere, bereziki olerti-gaietan eta bertsogintzan, laster aurrera egin zuan. 16 urte zituala, neurtitzez gogoeta ederrak egunkarietan maiz agertzen zituan.

Gero eldu zan bere irakasgaraiak. Euskerari gogorki eman zion. Bestalde, papel zaarrak astindu eta irakurri, euskal-elertia ikasi eta irakasi: ara or beste egintza bat berari zor dioguna.

Eraikintz eta erti-lanak maite zitualarik, or zebillen, al zuan guztian, jo batera eta jo bestera, eleiz eta elizaño guztiak ikusten. Neroni naiz ibilaldi orien lekuko, batez ere Araba'ko zelai eta mendietan zear egin zituan ikusketenena. Ori 1915n urtetik 1936garren arte: ogeita bat urtean, alegia.

Nere bizitzako egitamuan ba-det Lekuona'ren ukitze garrantzidun bat. 1915garren urtean, neri asko eragin zidan berri bat entzun nion berari: Aranzadi'k eta Soraluze'k Oyartzun'go mendietan cronlech edo *mairubaratzak* aztertzen ibili zirala eta D. Manuel bera ere laguntzaile izan zala. Azterketa orien berriak eta *Mairubaratzen* izen eta xeetasunak, Ataun'go *Jentilbaratza* izeneko ton-tor bat eta berari buruz ikasi nituan esaundak gogoerazi zizkidaten.

Aldi artan euskal-etniazaz ari bai nintzan ikerketa batzuek egi-ten. D. Manuel'ek adierazi zizkidan berriak begira, urrengo oporraldian —1916n urteko udagaraian— *Jentilbaratza*'ra joan nintzan eta an nere lenengo arkeo-azterketa egin nuan. Andik asi nintzan euskal-leengizakien bizikerak ikasten. Andik laster arkitu nituan Aralar'go trikuarri edo dolmen batzuek. Aranzadi'k, berri au jakin zuelarik, Barzelona'tik idatzi zidan eskutitz bat; beste bat idatzi zion Oviedo'ko Unibersitatean irakasle zegoen Eguren jaunari. Ortik sortu genduan, Aranzadi'ren buruz, euskal-arkeo-ikerlarien *irukoa*, eta ogei urtean elkarrekin jarrai, Euskarerriko leen-gizakia buruz azterketak egiten, 1936n urteko guda artio. D. Manuel tarteko izan ez balitz, ez nintzan agian beinere bide ortan sartuko.

Bitartean ba-zeben D. Manuel, euskerari eta euskal-edestiari eta euskal-erti-jakintzai begira. Bainan sarritan neri ere lagunduaz, nik berari baino geiago. Bere aolkuari zor diot, 1921n urteaz gero

nere ikerketetan idazteko egokien ziran izkiak erabiltzea.

Aldi askotan ordea, aolkuz ez ezik, ibilketetan ere lagundu izan zidan, Elkarrekin ibili ginan *Okabeko* leioak ikusten, Zaldia-ran mendiaren alboan, bera mallo-tontorrean sokari eusten eta ni, sokatik zinzilika dilindan, mallo izigarri aren erdialdean zegon ar-pea ikusten; Santimamiñe'ko arpe aundian; *Iruña* izeneko muñoan askotan, erromatarren garaiko erri baten aztarnak ikusten; *Tuyo*'ko leizean; *Kantabria*-mendiko San Tirso'ren eta San Killiz'en arpeen-tan; *Izkiz*-inguruko errietan, batez ere Faido'n, Albaina'n, Laño'n, Markinez'en eta alde aietako ainbeste arpe eta leengizakien arpeen-tan eta erdi-aroko elizañoetan. A! ta Lano'n gertatua! Villafria'tik iru lagun zaldiz gijoantzela, tarteko mendi-gallurrean, Laño-aldera itzuli giñelarik, asi giñan Laño'ko kanpaiak entzuten, baita suziri edo koeteotsak ere. Egun artan Laño'ra joateko baitzan Calahorra'ko apezpikua, lañotarrak iru zaldizko apez-antzekoak bidean ikusita, apezpikua bere lagunekin zetorkiela iduri zitzaien eta erriko sarreran bildu ziran, beren apez eta agintariekin, guri arrera ospetsu bat egiteko asmoan. Ze ametsondo lagunalde arena, ikusi zutelarik, apezpikua ez baino, iru arlote, leize eta arpeetan tras-kilduak, eldu zirala!

Mendi eta ibarretan zear azterketan gebiltzela, aski paketsu arnasa artzen genduan. Gasteizko seminarioan eta irietako griñaburrukan etzan berdin: alderdi askotatik estutuak, goibelaldi ugarien artean, al genduena egiten: Jainkoa elburutzat, Kristo jarraibide eta eredutzat; bidea ordea aski takets eta koskaduna: lanbide zail, neketsu eta oztopogarria benetan. Ikasleak, beren jatorrizko bidean, beren etxeko eta beren erriaren begira ariari ezitzea uste genduen egokiena: pedagogiak ori erakusten zigun, bainan orduko aztura, euskaldunentzat beintzat, entzijoan bide ortan: mizpe-ran elorriaren txertua jartzera beartzen ginduzten.

Alaz ere D. Manuel'ek euskerazko eskolan egin zuan lanari esker, giro itxarokorra inguruan sortu zuan. Ikasketa edota irakasketa soila ez baita aski, D. Manuel'ek lanbide orrekin batu zuan ikasleen artean ikerketa ere, *Kardaberaz* taldea eratua. Ortan lan ederra ari zan egiten. Geroztik ordea zenbat gora-bera mundu doakabe ontan! 1936 garrengo astinketak sakabanatu ginduzten danok.

Bainan ereindako azia etzan arrunt galdu. D. Manuel'ek aspaldidanik sorrerazi zuan uranbilla etzan erabat baretu. Orain poztu

saitezen: ekaitz gaiztoa urruntzen ari dalarik, uranbilla indartu da berriro. Gertaera orren adierazgarri, ara emen gure egungo biltzarra, ara gaurko jai zoragarria —*Kardaberaz-taldearena*, alegia— eta beronen sortzaille Lekuona'tar D. Manuel'i egiten diogun omenaldia. Zorionak berari eta zuei guztioi orain eta beti. Eskerrikasko!

Tolosan'n 1977go Abendearen 28n

Barandiaran'go Joxemiel